



Usurbilgo Udala

2026/05/12

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2026KO MAIATZAREN 12AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Ainhoa Arrozpide Landa eta Iratxe Begiristain Otegi.

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta eta Xabat Beloki Segurola.

1.- 2026KO APIRILAREN 14KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2026ko apirilaren 14ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- AZTARRIKA USURBILGO GAZTE MUGIMENDUA ELKARTEEN UDAL
ERREGISTROAN INSKRIBATZEA (2026IEUE0001).**

Ikusita

Aztarrika Usurbilgo Gazte Mugimendua elkarteak Usurbilgo Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzeko eskabidea jaso da 2026ko apirilaren 27an.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntuan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu da.

Kultura, euskara eta gazteria teknikariak aipatutako elkarteak irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin du 2026ko maiatzaren 6an.

Kontuan hartuta

- Udalaren irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).
- Kultura, euskara eta gazteria teknikariaren 2026ko maiatzaren 6ko txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehena: Aztarrika Usurbilgo Gazte Mugimendua irabazi asmorik gabeko elkartearen udal erregistroan inskribatzea.



Usurbilgo Udala

2026/05/12

Bigarrena: erabaki hau berri interesatuari jakinaraztea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:40ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.